



ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea

1922'ko Azaroa

47 Zenbakia

DEUN GUZTIEN JAIA

Eliz AmaSantak edo deunak zer jai du bereziena Azaroan?



OMINE Santu edo Deun guztien Jaia. Jai oni ofela deitzen zaio, egun berean jai egiten dualako Eliz Ama Santak, beragandik, naiz Lege Zafean ta naiz Befian atera diran Santu edo deun guztientzat.

¿Nondik nora sortu da jai ori?

Jai ori lenengoz Efoma'rako bakarik sortu zan. Zazpigarfen eunki edo mendearen asieran Laugarfen Bonifazio Aita Santuak, esatera goazen gertaeragatik sortu zuan. Jesukristo'ren jaiotzea baño ogei ta

bost urte lenago, Agripa Efoma'ko Efi-buruak (Enperadoreak) gezufezko jaungoiko guziei goratu zien eliza, Fokas efiburuak len aipatu dugun Aita Santuari eman zion. Eta onek eliz katolikotako itzuli zuan Jaungoikoaren Ama, Birjiña Mariari ta Martire (Ziñopa) guziei eskeñiz. Andik aufera urtero jai aundi bat egiten zan eliz artan Ama-Birjiñaren eta Santu. Ziñopa guztien gorapidez. Baño gero elizan Martire edo siñistasunagatik opa egiñik iltzen ziranaz gañera, beste santu edo deun asko izan zalako, auen gorapiderako ere lengo jaia bera egiten zan eta andik aufera egun berean, zeruan diran santu ta zorioneko guzien gorapiderako egiten zan jai ori.

Jai au Eliz guziari agindu zion egiteko, IV-gafen Gregorio Aita Santuak.

Zer ziñiskai aldeorokoa gogorazten zaigu Elizan Jai onetan?

Santu edo deun guzien alkartasunaren siñiskaia edo siñistekoa. Egia izanañen lufeko eliza zerukoarekin beti artu-emanean ari dala, egun ortan batez ere gertatzen da ori. Egun ortan alako gorpaidea ematen bai-diote ta alako otoitzak egiten bai-dizkiote gu ere zeruratu gaitezentzat.

Zer esan nai du Santuen alkartasunak?

Guk Kredoan aitortzen dugun Santuen Alkartasunaz esan nai dugu Jesu-kristo'ren Eliza'ren aur guztien artean daukagun bilgura ta batasuna. Bafuko ondasunetan Eliz onen ume guztien artean ba-dala beti elkarren arteko artu-eman ta batzuek besteaz aberastutzea.

Eliza orain aldian iru sail edo talde aundietan banatua dago:

1.^a Oraindik luñean bidari guazen auen saña; *Eliz Gudalaria* deitzen zaiona, bereak Jesukristo'ren alde, gudan, bufukan eta zerua irabazteko in-darka gabiltzenak geraldako.

2.^a Bizitza ontatik utsen batzuekin atera ziralako, uts oien ordaña gar-bitzen ari diran aien saña, oni deitzen zaio *Eliz Nekatia*, min, oñazetan ar-kitzen bai dira.

3.^a Luñeko beren garaipenaz ta irabaziaz gozatzen eta atsegin artzen ari diran aien saña. Oni deitzen zaio *Eliz Garailaria*, luñeko etsai guzieta-tik garai aterarik, orain betiko Jaungoikoaren ondoan, onen atsegin gozape-naz beterik daudelako.

Elizaren lenengo bi sañak irugañengora aldatuko dira, egunak betetzean eta *Eliz Garailariak* betikotasun guztian iraungo du.

Orain iru sañetakoakin izan dezakegu artu-emen. Zeruan dauden deuna-kin aiei gure otoitzak egiñez, bafuko ondasunak eskatuz eta berak Jauna-gandik guretzat ondasun asko iritxiz. Garbitokiko edo Purgatoriokoakin, gure otoitzaz, eskeintzaz eta nekeaz beren neketatik irteteko lagunduz eta aiek oñen eskeñ onez, guretzat Jaunari mesedeak eskatuz.

Tudela'r K. A. O. M. Cap.

Nueva Ponpeya (Buenos-Aires)




MILA zortzireun eta larogei ta amabostean, Buenos-Aires'ek ez zuan «Bañado de Flores» deitzen zitzaion, Auzoa baño alderdi txarago-rik. An bizi ziran Itali'tik joandako non erori ez zuten guztiak. Langilerik beartsuenaz ta oiturarik lasaienaz josia zegoan. Bue-nos-Aires'ko zakañ guztiak ta ur zikiñak araxe zijozzen.

Paul'dañ Bizente deunaren Alkartasunakoak gogoz ekin zioten uriko Buruei, alderdi ura garbitu ta ondu zezaten.

Ortarako etxe geien zegoan tokian goratu zuten eliztxo bat Nueva Pon-peya'ko Ama-Birjiña Eñosariokoari eskeñia. Apaiz bat ango lan gogofa egi-teko ez zala naiko ezagutzean Aita Kaputxino Itali'afai eskeñi ta eman zio-ten eliztxoa ta berentzat etxea goratzeko lufa 1891'an. Bi urte gero go bu-katzen zuten eliza.

1901'koa arte, Aita Italia'fak jafaitu zuten egiñalak egiñez, beren etxea goratu bitartean inguruko auzoetan Jaungoikoaren legea zabaltzeko. Baño



Nueva Ponpeya'ko Ama-Birjiña ta Eliza

ezin garaitu zituzten eragozpenak sorturik, Euskalefi'ko Kaputxinoen eskue-tan jañi zuten aien ango etxea ta lanbide guztia 1902'an.

Orain ere berartan Nagusi dagoan Kaseda'ta Agustin Aita izan zan lanbide ori bere gain artu zuana. Baño gure Aitak, biztanleen anima edo go-goak ondo erakutsiz zuzentzeaz gañera, begiratu zuten ango alderdia gar-bitu, txukundu ta ondutzeaz. Eta Buenos-Aires'ek len zuan zokorik itxusie-nean goratzen da orain «Nueva Ponpeya'»ko eliz bikaña ta ontatik izen au gelditu zaio auzo oni, lengoa galdurik.

Aita Kaputxinoak eliz onen ondoan goraturik dauzkate aspaldiko urte-tan bi ikastetxe, doarik (debalde) langiuen umeai erakusteko; bata mutiltxo-entzat eta neskatxoentzat bestea. Ortaz landara berak daukate Paul'da Bi-zente Santuaren Alkartasuna, uri aundi onetako beartsuei zerpait laguntza emateko.

Ama-Birjiña'ren Burueraztuntzea.

Dagoniñaren ogeiean izandu dute gure Aitak bere eliz edeñ ontan Ama-Birjiña Ponpeyakoaren Buru-eraztuntzea edo koroiazioa.

Ama-Semeentzat bi buru-eraztun edo koroï aberats-aberatsak, ari-bika-ñaz edertuak iritxi dituzte. Ari-bikaña'k Adelaida Maria Harilaos de Olmos Andreak eman dizkiote.

Goizetik asi-ta giza-sail gaitzak bildu ziran gure Jauna artzera ta Meza nagusira. Au «Laurak bat» abeslari edo kantari sañak kantatu zuen, eta Ai-ta Santuaren Ordezkoak eman zuan.


Añatsaldeko iruetan zan Ama-Birjiñaren buru-eraztuntze edo koroyaldia ta eguerdia ezkeror neketan afapatu emen ziteken ara zijoazen tranbia uga-rietan tokirik. Alderdi artara ematen zuten kale-mutuñ guztiak ezin artu ala siñistun Nueva Ponpeya'ra juañ nai zuenaz beterik omen zegoan eta. Amai-ka Obispo ta Aita Santuaren Ordezkaria an ziran, baita Arjentina'ko Buruen ordezko ta beste aundizki asko ta asko, ezin zenbatu añeko siñistunekin.

Eliz-inguru ikusgafia egin zan, Aita Santuaren Ordezkariek Ama-Bir-jiña, bere, Semetxoaren ondotik buru-eraztunez jantzi ondoan.

Egun aundia Nueva-Ponpeya'ko Ama-Birjiñaren kondaira edo histori-rako.

Beri auek guziak Buenos-Aires'ko, «El Pueblo» ta «La Nación» egune-rietatik artu ditugu.

Z. X.





LUÑEKO GAUZETAN JAUNAREN



AUNDITASUNA AGERTZEN DA

Domine, Dominus noster, quam admirabile est nomen tuum in universa terra.

Gure Jauna ta Jabea, zeñen afigafia da zure izena Lufa guzian. *Ps. VIII, 1*.



AUZ afigafien artean jaiotzen geranetik iltzeraño bizi gera gizon guztiok eta ikusi ezaz gañera susmatzen ere ez ditugu, adimenetako begiak itxi ta daukagulako.

Zenbat aldiz udako gauetan, eguzkiak kiskaldutako aidea zerbait oztutzen danian, etxeko atarira ateratzen naiz, eta exeririk ortze izafez josiari begira, nere buruan galdetzen diet: Nork egiñ zaitue, izar dirdiratsu oiek? Nork ipiñi zaitue ortze zabalean banaturik, eunka, aneika, eziñ zenbat alik, eliz bateko argiak bezela? Nola zaudete itxuraz geldi, azkartasun izugariaz zabiltzatenean? Bañan... badakit zer egiten dezuten: Jaungoikoaren aunditasunaz itzegiñ, bere altasuna azaldu. Coeli enarrant gloriam Dei et opera manuum ejus annuntiat firmamentum. Ortzeak Jaunaren aunditasunaz itzegiten du ta bere eskuetako egiñak agertzen ditu.

Gero, egunsentia datofela, nola gozarazten dituzten gure begiak mendi garai tontof ta zuaitzez ornituak ta ibaf edef, ibai ta efekak nafotuak!

Mendi garai oiek, nork bete ditu zuen efiak mota guzietako meez? Nork ipiñi dindilizka zuen maldetan belardi guri ta zuaitzti ospatsuak.

Loretxo edefak, esaidazue: Nundik ikasi dezute ofelako usai gozoak egiten? Zeñen soñeko polita egin dizuten goiko Jostun jakintsuak. Igartu etzaitezten zuen zañen aldamenetik igarotzen da, ixil-ixil efekatroa edo ibai zabala, ureztatzen zaituzte odeiak euriaz, eta zuaitz adartsuak itzal egiten dizute. Zertarako ori guzia? Ondo igafitzen zizuten, zuek eskerak emateko nai dezutena zuen burutxoak makilaz ukituaz esaten zizutenean Gurutzeko Paul Deunak: *Ixildu, ixildu zaitezte, zer ezan nai didazuten badakit-eta.*

Eta luñean efestaka edo laxterka, aidean egaka zabiltzaten biziztun-mota guziek, nundik artzen dituzute ibiltzeko indafak eta egiten dituzuten gauzak egiteko almena? Nola almen berezi batez dagokizuena ta eztagokizuena ezagutzen dezute? O, bai esango dizuet Babiloni'ko labeen zeuden iru mutilekin batean: *Benedicite, omnia opera Domini, Domino; laudate et superexaltate Eum in saecula.* (1) Onetsi dezazute Jauna, Jaunak egindako gauz guziki; beti-beti goratu dezazute.

Aundia da Jauna ta bere aunditasunari mugarik eztiot arkitzen egunero nai ta naiez lur gañian ikusten ditudan gauz afigarietan, bañan bañuan bildu-

(1) *Canticum trium puerorum.* (2) *Ps. 8, 1.*

rik nere izateari begiratzten ba diot jo! nolako aunditasunak ikusten ditudan! Nere begiak inguruko gauzen irudia ekartzen didate. Nere entzukiak luře-ko soñuak eta gizonen itzak artu ta buru bařuna eramaten dituzte. Nere usaimenak eta nere gozamenak gauzen goxotasuna ta usaia aditzen dute.

Jauna, Jauna, esango det Igartzaleakin, zeñen ařigafia da zure izena luř guziaren gañean (2); baño batez ere gizonan. Bera aingeruak baño pitiñ bat txikixagoa egin dezu; berari eman diozu adimena gauz guziak, beregan artu gabē, ezagutzeko ta bařenetikan ikusteko; berari ezaři diozu naimena, Zugan ezpada iñun atsedetik artu ez lezakena ta adimen eta naimen oien aseztaile janaria betikotasun guzian Zerori bakařa izango zera.

Aundia zera, Jauna, goitiko (1) emaitzetan; bañan aundia zera baita iza-dian (2), nik begiz jotzen ditudan gauzetan.

Mundu guzia zure eliza da Zuk itz batez ezerezetik sortua. Bi argiza-gien erara eguzkiak ta ilargiak argitzen dute; ta bertan itxaso ta ibaiak, ba-so ta mendiak zure aunditasunari abesten diote, ostots-oñazkarak aldi-aldiz-ka zure zuzentasuna ta asefea agertzen dutela. Eta eliz aundi onen erdian apaiza bezela dago gizona, luřeān dauden gauzai eman dizkiezun aberasta-sunak ezagutzeko eta ezagutuaz zure aunditasuna ta eskuzabala goratzeko.

Zeñen ederki ikusten zinduen zure mirabe zintzo-zintzo ta siñismen aun-diko gizon afeķ, Asis'ko Frantzisko Santuak, mundu ontako gauzetan, ura ta eguzkia eta abar bere anaiak deitzen zituanean.

Zeñen poliki zure aunditasun au beñ ta beřiz goratzen duan bere eresē edo salmotan Dabid Igarleak. 103'gafez eresian bere irudimenaz luř guzia ibiltzen du, aingeru, iturē. mendi-ibařez, abere-ařaieķ, ikusten du zure esku-tik izatea artzen dutela gauzak eta Zuk utzi orduko ezerez biurtuko lirakela eta eskertasuneķ beterik esaten du:

Cantabo Domino in vita mea,
psallam Deo meo quamdiu sum
Jucundum sit ei eloquium meum;
ego vero delectabor in Domino
Deficient peccatores a terra,
et iniqui ita ut non sint
Benedic anima mea Domino.

Euskeraz onela esan nai du: Nere bizitzan Jaungoikoari abestu edo can-tatuko diot; bizi bitartean eresiak egingo dizkiot.

Nere itzak atsegiñak bitzaizkio; nik nere aldetik Jaungoikoagan atsegi-ña artuko det eta.

Luřa gañetik ayendu bitez pekatariak; ezerez biurtu bitez gaiztoak.
Nere anima, Jaungoikoa onetsi ezazu.

(1) Goitiko=sobrenatural. (2) Izadi=Naturaleza.





¡ILOBI ELURTSUAK!



I

Ildegi-aufetik
igaro nintzan
egun elurtsu-ñun
baten, libeltzan.

Txistuka sorbaldan,
zuela atxurá
orduantxeeldu zan
ortzale zara.

Biok sañtu giñan
izketan bañura:
oldoztun ta itun ni
ta pañez ura.

Zuri-zuri zeuden
ardi-ñlea lez
ñlobi guziak
izotz elufez.

Eta esan nuan
nire artean:
¡bai zuri ta garbi
ziñez gañean!.

Ortzaleangana
urñildu nintzan:
ñlobi-ari bat
kentzen ari zan.

Eta esan zidan
kendu-ostean:
¡Bai ustel ta zikin
ziñez bañuan!.

II

Iltegitik-berontz,
etxerakoan
ardotegi baten
ate ondoan,

agure ñle zuri
erdi mozkoñ bat
birauka ikusirik,
iltegiarat

nire irudimena
egaka jun zan,
ta ñlobi-elufaz
oroitu nintzan.

Ta esan ere bai
nire artean:
¡Bai zuri ta garbi
buru-gañean!
¡Bai ustel ta zikin
biotz-bañean!

lauregi'tar Koldobika

Ildegi - iltokia - canposantua. Oldoztu - pen-
tsatu. Ortzale-entefadoria. Birauka - maldi-
zioka. Irudimena - imaginazioa.






PRO DEFUNCTIS



(Donostiaf J. And. Abak ereskidetua).

(♩ = 52)


E - fu - ki - tu, e - fu - ki - tu,
Mi - se - re - re, mi - se - re - re,



E - fu - ki, za - tza - yo Jau - na Kris - to
Mi - se - re - re i - lli De - us Chris - te



e - ros - le e - man yo - zu bar - ka - pe - na.
re - dem - ptor ve - ni - am e - i con - ce - de.



Mundi rector et redemptor,
Jesu Christe, rerum auctor
Christe.

Qui exaudis obsecrantes
Et gementes Te precantes.
Christe.

Parce nostris jam delictis,
Fove vultu pietatis.
Christe.

Qui exspectas poenitentes
Et peccata deplorantes.
Christe.

Sacerdotum audi preces,
Aures tuas implorantes.
Christe.

Fratres mei et sorores,
Pro me sitis oratores.
Christe.

Pulvis jacet caro mea
Non resonat lingua mea.
Christe.

Miserere, miserere
Miserere illi Deus
Christe Redemptor, veniam
[ei concede.]

Zuzentzale ta erosle,
Jesukristo, gauz-egile,
Kristo.

Eskatzaien entzunlari,
Negartien txukalari,
Kristo.

Aztu gure utsegiñaz,
Poztu begi gozodunaz,
Kristo.

Damutuen zai zaudena,
ta gaizkiñen gorapena,
Kristo.

Entzun Apaiz eskalari
Ojuka daukazunari.
Kristo.


Ene anai eta afebak,
Izan nitzaz otoizleak,
Kristo.

Luñ biurtu zait gotputza,
Mututu're bai agotsa,
Kristo.


Efukitu efukitu,
Efuki zatzaio Jauna.
Kristo.

Ar'tar A.

E - fu - ki - tu, e - fu - ki - tu, e - fu - ki - tu or - taz Jau -
Mi - se - re - re, mi - se - re - re, mi - se - re - re i - lli Dè -



na, Je - su - kris - to Gu - re Jau - na, Bar - ka - pe - na e - ma - yo - zu.
us, Tu Je - su Chris - te Do - mi - ne Ve - ni am é - i con cé de.



Miserere, Miserere,
Miserere illi Deus,
Tu Jesu Christe Domine
Veniam ei concede.

ÿ. Qui regnas in perpetuum
Trinus et unus Dominus
Defuncti hujus animam
De inferno tu libera.

Miserere. . . .

ÿ. Tu vera, Sancta Trinitas
Et unus in substantia
Defuncti hujus animam
Cum electis agglomera.

Miserere. . . .

ÿ. O pia Dei Genitrix
Maria mater virginum
Intercede piissima
Pro hoc defuncto famulo.

Miserere. . . .

ÿ. Tu Michael Archangele,
Continuatis precibus
Adesto nunc propitius
Pro hoc defuncto famulo.

Miserere. . . .

ÿ. Inter choros coelestium
Inter catervas martyrum
Resurgat hic in gloria
Ovans ad Christi dexteram.

Miserere. . . .

Efukitu, efukitu,
Efukitu ortaz Jauna,
Jesukristo gure Jauna
Barkapena emaiouzu.

ÿ. Beti agintzen dezun Jainko,
Irutasun Jaun bakara,
Iñ onen gogo azkara
Irtzen sutik bein betiko.

Efukitu. . . .

ÿ. Egiatzko Irutasun
Izatez bat zeran ori,
Iñ onen anima ona
Ar-zazu onakin zerun

Efukitu. . . .

ÿ. Jainko-Ama, biotz bera,
Garbien Ama Maria,
Egizu bai eskaria,
Iñ onen zorionetan.

Efukitu. . . .


ÿ. Migel Goiaingeru oñek
Zuk guretzat luze eskatu,
Iñ onen alde otoiztu,
Lagundu zaiozu añen.

Efukitu. . . .

ÿ. Zerutafen sail erdian,
Ziñopaen leñoetan,
Igo bedi au zerura,
Kristo'rekin poztutzero.

Efukitu. . . .

Añ'tañ A.



AITA PIO KAPUTXINOA



AITA Pio, sukarak eferik egon ta ere, eta eztulka, bulafak eztulak auntsi nayeana bezala, egun geyenetan, goizero aitortegian eseritzen da.

Ogei ta amabost urte ditu, bizi da Napoles'ko efi txiki batean, San Giobani, Foggia'tik 80 kilometro. 1918'ko urtean, agofaren 20'an, korutik ateratzean, bat batean ezkutatu egin zan. Afiturik guzik afen atzetik ibiri ondoan, bilatu zuten korderik gabe, bost zauriak gorputzean, aragia samuŕa, eta odola mei-meia. Orain baño ikigoak ziran zauriak eta aŕos usai aundia botatzen zuten.—Egun batez, etxetik atera gabe, eriotzeko orduan zegoan eri bat sendatze-
ra izandu zan. Maiz agertzen die bere barne guzia, konpesatzera joaten zaizkionai. Bi aldiz gertatu da, aitortegi edo konfesanariotik sakristira, inork ikusi gabe, gorputzik ezpalu bezela joatea. Aŕigafiena da bere gorputzaren berotasuna 60 grd° ba-ditu; berotasun au neuritzeko termometro befi bat Alemania'tik ekafi bear izandu zuten. Sendagile batek esan du, milagro bezela bizi dala. Inŕori ez dizkio erakusten zauriak; mezarako bakaŕik kentzen ditu guanteak; ofengatik, gizon ospatsuenak ere meza lagundu nai izaten diote. Komunioa ematean, meza jantzia z gorde egiten ditu aldun obekiena.

Askok bere antza atera nai izandu dute, baño ezta uzten. Bein, ala ere, nola bait, berak jakin gabe, atera zuten. Alde guzietatik idazten (eskribitzen) diote.

Benedikto XIV'garen, Aita Santuak, erakutsi zigun aspaldi, zauriak eztingutela erakusten norbaiten santutasuna, baizik gizonaren santutasunak erakusten digula zaurien santutasuna.

Batzuk diote, zauri aiek Aita Piori egin zitzaizkiola berez, berak, ainbeste Jesukristoren neke-oñazetan gogoa erabiliz. Baño, au ala balitz ere, izer? Ortan ezagutuko litzake bere Jaunarekiko maitetasuna aundia eta bizia zela ziñez ¿Ezpai-zaizkion bestela zauri oyeke egiñen?

A. I. M. A.



AITA MISIOLARIAREN ORDEZ



1



2



3

Ori
biotza
Aurtxo
orena.

Aur
beltza
oroitu
gutaz.

4



5



AITA MISIOLARIAREN ORDEZ

1=Sortaldetik azaldu ala ufezko printzak darizkion eguzkia [ikusi duzu? Eskuieko eskuan zumezko otafetxoa daraman mutil koxkor buru beltzak eguneroko eguzkiaren soferaz afiturik, ala dio berekin dijuan txapeldunari: Guztiz da edera eguzkia, Aita; edef-zoragafiagoa, ordea, bere Egilea ala noski Aita?—Bai orixen, maitea.—Esango didazu eguzkiaren Egilea nor dan?—Bai, gaztetxoa, erantzun zion txapeldunak; bañon zu nekatua zaude gaufero, ni bezela; otafetxo ortan dakarguna jateko zaletua zu.. nire bai.

2=Ara emen kerizpe edera eta.. jaun txapelduna eta gazte beltza itzalpean exeri ziran.

Jaun txapelduna ¿nor ote zan? Jaungoikuak, egun batian, euskalefian beretzako autatu zun muti koxkor alai-potxoloa: *Jose Manuel* bere izena, amaika urte beteta basefitik ikastetxera jun zanian; amabi urtez ikasi ta ikasiz ari ondoan apaiz egin zan eta meza eman ala:

«Animen onerako zure etxea utzi, esan zion Jesus maitiak; zure gura-soak utzi; zure aberastasunak eta atsegiñak ere alde batera utzi ta.. zoaz aiderik izango eztezun tokira, jun ama're ikusiko eztezun tokira, ta.. Joxe Manuel jauna, euskalefian izango zitun atsegiñ aberastasunak utziyaz, an jun zan Aprikara; ama gaxua ere negafer utzita aminenganako zaletasunak eraman zun Aprikako beltzen artean bizitzera; ara nor zan jaun txapelduna.

3=Goseari berea eman ta Joxe Manuel Aitaren aotik, eguzkiaren Egileaz gazte beltza gauz edefak entzuten ari zan bitartian ofu, ikaragafia aditu zuten.. antxen bertan.. ¿Katamotzen bat ote zan? Alaxen izango ote dan bildufak jeiki azitzen ditu bi lagunak ta an zijoaztek zugatza gora, zugatz adafetan beren burubak gordetzer.

Aita, dio mutiñak, katamotza da.. eta Aita misiolariak ere ikusten du zugatz oñean katamotz ikaragafia, inpernuko txinpartak diruditen begiekin bieñ amofuz begira.

4=Aita, dio befiz gaztetxoak: katamotz oñek gose amofatuba dauka. Ortxen egongo da noizpait ere jetxiko geran zai! bitako bat jateko iritxi artean, ezta joango.

—Ni banua ba jetxitzera, gorde zure burua, gaztetxo maitia, dio misiolari leial-prestubak

—Ez orixen, erantzuten du gazte biotztunak: zure bizitza beara da kristaumentzat eta kristau eztiranentzat; nerea ez ordea ta.. an zijoak gazte beltza katamozaren atzapafetara.

Lardakatu-iretsi, bat batian egin zun pizti ikaragafia eta gero ezpañetako odola mingañarekin igortziaz bere arkaitz zulora alde egin zun.

5=Ene ba, Jauna, esan zuan misiolariak, zugatzetik jetxi ta maitasunak martira egin zan gaztetxoaren ezur puska gañian belaunikatu zanian:

Mila esker Jauna; oraintxen bai zure edertasuna ikusten dagola, nigatik ni ez iltzeagatik, katamotzaren gosea asetzeko, bere burua eman dion aingerutxo au. Ni zugana etofi arte zure efukiak nere izenian ere, abestu ditzala, ene Jesus... ta Joxe Manuel Aitak pozaren pozaz biotza xamurturik, ikusi zuana eskutitz (carta) gozoan, euskal efian oraindik bizi zan bere ama maitiari esan zion.

Oyartzuna O. M. Cap.



Ukrania, Iraila.—Soviets'en gobernuak katolikoak ezin dituzte ikusi. Asi dira befiz al duten kalte geiena egiten. Elizetan arkitzen dutena lapurtu ta apaizai txarkeriak besterik ez dizkie egiten. Kamieniek'en eliz guziak itxi dituzte ta ez dira elizkizunak egiten. Soviets'ak bialdutako zaldizko soldaduak banatu dute elizak idikitzeko eske zegoen jendia.

Paris, Iraila.—Suecia'ko gobernuak, edari biziak edo alcohol-dutenak galerazi baño lenago, bere mendekoak zer nai duten jakin izan nai du ta ara emen: 942.119 izan dira galeraztea nai ez dutenak ta 897.584 nai dutenak. Estokolmo'n 71.124 emakume dira galerazpena ondo artzen ez dutenak ta 14.372 ontzat ematen dutenak; gizonak befiz 68.664 aurka jafi diranak ta 7.664 ofen alde daudenak. Lenengo ministroak, ori ikusi duanean, esan du orain beñepein ez ditezkelarik ardo ta edari alcohol-dutenak Suecia'n galerazi.

Berlin, Iraila.—Berlin'era datozenak afitu-ta gelditzen dira, katolikoenganako ikusi eziña, efi onek galdu duela ikusi ta. Berlin'ek badiu 34 pafoki katolikoak ta beste bederatzi eliz oien mendean. Berlin'ek eliz guztiak kontatu ezkeror badira guziak iya eun. Zazpi ordenetako praileak ere badi-tuzte bere etxe ta elizak ta mojak ere ugari dira.

Yugoeslavia-Varazdin, Iraila.—Croatak lenengo aldiz Eukarizti Batzaña Varazdin 15 000 animako efiar egin dute. Batzañeko azken egunian 3 Gotzai, apaiz asko ta 40.000 kristau bildu ziran Jaunaren afean. Afeiko gaua elizan igaro zuten. Ainbeste jende aitortzeko etziran naiko apaiz guztiak. Azkenengo egun ortan eguberdiko ordubitan oraindik asko zeuden barurik aitortzeko itxoiten, gero Jauna artu nai zuten ta 20.000 Jauna artze-ra urbildu ziran. Pafoki batzuetan apaiz gaizto batzuk Elizaganako gofotoa zabaltzen lana egin dute; ta aitzeko gauza! pafoki oiek, besteak baño jende geiago bialdu dute Batzar ortara, egiazko Elizaganako maitetasun ta zale-tasuna ederki erakutsiaz.

Txeko-Slovakia-Brünn, Iraila.—Dagonilaren 13, 14 ta 15 egunetan katoliko kirol edo gimnasi zaleak batzar aundia egin dute Brünn'en, Orel deritzaion alkartasunak bildu du batzar ori; ofen batzarkideak bakarik 150.000 omen dira. Beste efiak ere izan dituzte bere ordezkioak, Prantziak 480; Bel-

gikak 750, Ingleterak 8, Suizak 10, Poloniak 8, Yugoeslaviak 1200 ta Amerikak 20. Iru egunetan etziran 300.000'tik jetxiko Brünn'eko joko-zelaian bildu ziran ikusleak.

India-Calcuta, Iraila.—Egiazko Elizatik aldendu-ta dauden Jakobitak asi dira gero ta geiago beraganatzen, apaiz katolikoai eskefak. Travancore'n zortzi sendi edo famili gugana itzuli dira, Charmood'en geiago. Quilon'go goterkian (diócesis) misio befi bat jafi ta alde guzietan jakobita asko etortzen dira gure Elizan artzeko eske.

Estados Unidos, Washington, Iraila.—Jakiña da Estados Unidos'etan Beltzak egiazko siñismenera ekartzeko alkartasuna bai-dala. Azkenengo amabi ilabete oietan 60 paroki befiak idiki dituzte ta bakoitzian umientzako eskola ere bai. Lan ortan dabiltzan apaizak 186 badira; gutxi ala ere gure siñismena artzen dutenen animak zaitzeko. Amerika'fak eskuetan artzen duten lan guziari bezela, oni ere beren diruaz asko lagundu diote. Amar urte besterik ez dira, Beltzen artian lan ori asi dala ta joan dan urtian misio oietarako 100.000 dolar baño geiago bildu dira. Misiolariak monja askok laguntzen die; 600 European jaioak dira, 275 befiz bertakoak.

Napoles, Iraila.—Uri onek ospatu du, Jenaro bere zaindariaren jaia ta aurtan ere al izan dutenak ikusi dute bere odolaren alatz edo milagroa. Goizeko 8,30'an bildu dira sakristian sartzeko txartela iritxi dutenak. 9,25'an etzan gauza befirik agiri Jenaro donearen odolan; orduan santuen letaniak elizan ziran. 9,37'an etzan ezer agiri ta otoitzak ere gero ta beroagoak. 9,40'an asi zan odola zer edo zer mugitzen ta 9,41'an osoro urtu zan. Txalo ugari jo zituzten alde guzietan.

Txina, Iraila.—Ango azkenengo befiak diotenez Txinako kristauak 2.056.338'raño eldu dira. 56 gotzai ta 2.414 Apaiz ari dira lanian; oietatik 996 bertan jaiotako Apaizak dira. Wenohow'n laxter irikiko dan katoliko ikastetxe befiak katolikoa egin duten auferapena erakusten digu. Reynaud gotzaiak Prantziako gobernuagandik ortarako 50.000 franko artu ditu.

Japon.—Tokio'ko gaztedi katolikoak asmo eder-edera artu du. Jakiñaz nolako mesedeak eskeintzen dizkien Jesus'ek bere Biotza gurtzen duten sendiak, japon'dar sendi guziengana mesede oiek jetxi erazi nai dituzte. Ofegatik Japon'go sendi guziak Jesus'en Biotzari eskeñi dizkio Tokio'ko Gongotzaiaren (Arzobispo) aufian. Gañera Paray-le-Monial'era seda txurizko bandera edera biali dute, bertan Biotz-Donearen irudia ta itz oiek: Sacratissimo cordi Japonicus Populus.» jafi ta gero.

India-Simla, Dagonila.—Efege gai edo prinziipe india'tar baten erioitzak tamalez bete ditu emengo kristauak. Efege-gai ori Tajpur'ko rajah'ren anaia zan. Oxford'en ikasten izana zan. Andik itzuli ta gero gure siñismena artu zuen. Egunero Jauna artzen zuen, ta Ama Birjiña maitasun biziaz maitatu zuen.

Ingletera.—Emen Prantzian bezela apaiz befa dago. Uztailako Catholic News Service aldizkingiak dio Liverpaol'ko goterkiak (diócesis) katoliko geienak dituela, 200.000 ta ala ere aurtan bi bakarik emen ditu apaizordena artzeko. Ikusten dan befa au, igarotako gudak ekañ du ta uste du emendik iru edo lau urtera apaiz naiko izango dirala, apaizgai etxeak beteak daude-ta.

Estados Unidos.—Neuw-York'en ateratzen dan Catholic Dyrectory'

ak dio 18.104.804 katoliko dirala an, ta 1912'an 15.015.589 zirala. Urte ortan apaizak 17.491 ziran ta gaur 22.049; ordun elizak 13.939, gaur ordea 16.615; ordun parokiak dauzkaten ikastetxetan 1.333.786 ume ibiltzen ziran, gaur beriz 1.852.498. Lana ere izugaria. Badira goterkiak (diocesis) Italia dana bezin aundiak ta Dinamarka añaiko parokiak ere bai. Apaizari aisa joaten zaio denbora andik onera bere *Ford*'en ibiliaz, seme guziak ikusi nai baditu.

Santiago de Chile—Agora

Uri ontako egunari papera «El Diario» izena duanak, bertan egin dan Eukaristiaz'ko Batzafe aundiaren befi pozgarrien artean dio: **Beñere ez da Txile'n izan izandu, atzokoa añaiko efitafen agealdirik.** Jesus Oteundu edo Sakramentatuaren jiran *eun eta berogei ta amaf mila* anima edo gogo zijoazen Ua (Jauna) goratuz. Nueva-York'era, ango egunarien ordezkariak gaztigatzen zaien: uste da gutxienez irurogei ta amaf mila ba-zijoazela jira bafuko maletan.

IDAZTI BEÑIAK

«Euskal liburu sorta»

Izen onekin argitaratu du Euskaltzaindiak ipui laburuzko liburutxo, polit-polit edergafiduna.

Begietatik sartzen da bere itxura edefaz, lenengo azalgañean dakañen irudi atsegingaritik azken ofialdetaraño noiz beinka dekartzan guztiaz, ipuen laburtasunaz ta euskera gipuzkoarazko ofen narotasun eta bitarteko efaztasunaz.

Garitaonandia'tar Bitor Apaiz langile bizkofak egiña da.

* * * * *

Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz

Ona *Eskauriatzaren Azpeiti'tar Julen'ek* egin duan liburutxo egoki ta ondasuntzua.

Euskeraz ez gendu onelako libururik. Emen darakusgu egileak, zer-nolako janaria, on zaigun, zenbat eta noiz ta nola artua, eta janaria nola beaf dan maneatu osasuntsua ta atsegiña izateko. Sukalzaientzat berebiziko liburu edo idaztia da.

Eusko-Argitaldaria'k, Bilbo'n, Banco de España, 3'ean argitaratu da ta bertan dago salgai.

* * * * *

«Argia»'ren egutegia, 1923

Idazti onek ez du, lotsarik beste odezein, izkuntzetan agertzen dituzten ondoan lekua artzeko. Guztiz egokia da ta siñetsiko diguzute dakartzan gaiak aipatzeaz bakafik:

Bertan dazkatzu: Barau, aragi-uzte ta bareamenen azalpena.—Eliz-egutegia.—Nekazari-egutegia.—Azkenai edo testamentuak.—Euskera eta beste izkuntzak.—Aufak nola azi.—Maitasuna ta emakumea.—Egualdiaren befi aufez jakiteko bideak.—Sukalde ta etxerako jakintzak.—Izirimiri ta asmakizun pafegafiak.—Abesti edo kanta batzuek, edergafiak eta beste gauza on eta polit asko.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Irufia'ko Kaputxinotan.